DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
› Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Urdaneta, 13 - Tel. 010 - 943481000 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK, KONTXAKO HONDARTZAKO HEGALPEKO 1 ETA 2 TABERNEN USTIAPENA KUDEATZEKO	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA GESTIÓN DE LA EXPLOTACIÓN DE LOS BARES 1 Y 2 DEL VOLADIZO DE LA PLAYA DE LA CONCHA**
0. Instalatzeko espazio publikoa.	**0. Espacio público para la instalación.**
Agiri honen xedea honakoa da: Kontxa hondartzako hegalean dauden taberna erabilerarako bi espazio (taberna 1 eta 2 bezala ezagutzen direnak) kudeatzeko kontratua arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea. Kontratu hau bi sortetan banatzen da: 1. sorta: Taberna 1 (14 m^2 taberna + 55 m^2 biltegi) 2. sorta: Taberna 2 (15 m^2 taberna, 14 m^2 biltegi + 15 m^2 soto) **Sorta baterako berariaz dela adierazten ez den guztia, bi sortentzat izango da.**	Es objeto del presente pliego técnico es el establecimiento de las prescripciones técnicas que regirán el contrato de explotación de dos espacios destinados para uso de bar, conocidos como bares 1 y 2, situados en el voladizo de la playa de La Concha. Este contrato se divide en dos lotes: Lote n.º 1: Bar 1 (14 m^2 de bar + 55 m^2 de almacén) Lote n.º 2: Bar 2 (15 m^2 de bar, 14 m^2 de almacén + 15 m^2 de sotano) **Todo lo que no se indique que es expresamente para un lote, será común a lo dos.**
1. Ustiapenaren kudeaketa	**1. Gestión de la explotación**
Instalazioa izozkiak nahiz ontziratutako beste gauza batzuk saltzeko beste ezertarako ez dago erabiltzerik, eta baldintza agiri honetan eta jarduera horretarako indarrean diren arauetan baimendutako neurrian eta ordutegian, betiere. Tabernak ustiatzeko eskubidean ez da kale salmentarik sartzen. Kudeaketan kontuan izan beharko dira elikadura produktuetako eta kontratuaren garapeneko ingurumen irizpideak. Adingabeei alkohol salmenta egitea ez dago baimenduta. Inolaz ere ez dago elikagaiak maneatzerik. Tabernak ustiatzeko denboraldia **ekainaren 1etik irailaren 30era** izango da 10:00 -22:00 ordutegian. **Aste Nagusi**ko egunetan ordutegia **00:00** arte izango da. Enpresa esleipendunak proposatuta, egun horiek Aste Santura eta maiatzera eta urrira luzatu ahal izango dira, betiere Udalari berariazko baimena eskatuta eta ustiatzeko baldintza berberetan.	La instalación se destinará únicamente a la actividad de venta de bebidas, helados, así como otros productos envasados en la medida y horario autorizado en este pliego, y en la normativa vigente para la citada actividad. La explotación de los bares no comprende el derecho al ejercicio de la venta ambulante. La gestión se realizará con criterios ambientales en cuanto a los productos alimenticios y el desarrollo del contrato. No estará permitida la venta de alcohol a menores. En ningún caso estará permitida la manipulación de alimentos. La explotación de los bares se realizará en la temporada comprendida entre el **1 de junio y el 30 de septiembre** y en horario de **10:00 a 22:00 horas.** Se ampliará el horario hasta las **00:00 horas** los días de **Semana Grande**. A propuesta de la empresa adjudicataria, se podrán ampliar estas fechas a los días de Semana Santa y a los meses de Mayo y Octubre, siempre mediante solictud de autorización expresa al Ayuntamiento y siempre en las mismas condiciones de explotación.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Jabari publikoko ondasun honen erabilera jabetza eskubidea urratu gabe eta besterenari erasan gabe egin behar da. Udalak zerbitzua etetea —baita, hala egokituz gero, ixtea ere— agindu ahal izango du, baldin zerbitzugintzari egotz dakizkiokeen kausengatik zerbitzua eskasa baldin bada, edota erabiltzaileen segurtasun, higiene eta osasungarritasunerako hartu behar diren neurriak hartu ez badira.	La utilización del bien de dominio público se efectúa salvo el derecho de propiedad, y sin perjuicio de tercero. El Ayuntamiento podrá ordenar la interrupción del servicio y en su caso la clausura cuando por causas imputables a su prestación, ésta fuera deficiente, no contara con las medidas necesarias para la salubridad, higiene y seguridad de los usuarios, u otras causas de fuerza mayor que el Ayuntamiento considere de importancia.
2. Egin beharreko Obrak eta instalazioak	**2. Obras e instalaciones a realizar**
Ustiapenaren barruan izango dira hura ondo aprobetxatzeko behar diren obra eta instalazio guztiak (ura, argindarra, saneamendua...). Hartu behar den argindar guztia energia iturri berriztagarritatik sortutakoa izan behar da. Instalazioa hobeto ustiatzearren esleipendunak egindako obra eta instalazioak Udalaren jabetzara igaroko dira, kontratualdia bukatzean. Kontratua hartzen duenak ustiapena egiteko erabiliko duen ekipamendua partikular batenak izango dira, eta, beraz, ez zaio Udalari itzuliko, inolaz ere.	La explotación comprenderá todas las obras e instalaciones necesarias para su adecuado aprovechamiento como agua, energía eléctrica, saneamiento, etc. El 100% de la energía eléctrica a contratar debe proceder de fuentes de generación renovables. Las obras e instalaciones efectuadas por la entidad adjudicataria para el mejor aprovechamiento de la instalación, pasarán a propiedad municipal al término del contrato. El equipamiento que utilice el adjudicatario en la explotación es de propiedad particular, y no revertirán, en ningún caso, al Ayuntamiento.
<u>3. Zerbitzu Publikoa</u>	**<u>3.-Servicio Público</u>**
Kontratu honen xede den emakida zerbitzua (Kontxako hondartzako hegalean dauden 1 eta 2 tabernak kudeatzea) zerbitzu publikoa denez, Donostiako Udalak bere egin du. Bete beharreko araubide juridikoa, ekonomikoa eta administratiboa agiri honetan, Baldintza Administratibo Zehatzen Agirian eta lizitazioa arautzen duten gainontzeko dokumentuetan zehaztutakoa izango da. Emakida zerbitzu publiko batena denez, direnak direlako zerbitzuek ondo dihardutela bermatzeko beharrezkoak diren polizia-ahalmenak gordeko ditu beretzat Administrazioak.	La concesión de servicios objeto del contrato (la gestión de los bares 1 y 2 del voladizo de la playa de la Concha), al ser un servicio público, queda asumida por el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián como propia de la misma. El régimen jurídico, económico y administrativo será el establecido en los presentes pliegos, en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y en los demás documentos que rigen la licitación. Como la concesión recae sobre un servicio público, la Administración conservará los poderes de policía necesarios para asegurar la buena marcha de los servicios de que se trate
<u>4. Esleipendunaren betebehar espezifikoak</u>	**<u>4. Obligaciones específicas del adjudicatario</u>**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Esleipendunak ezin izango du obrarik egin udalaren lizentziarik izan gabe.	El adjudicatario no podrá realizar obras sin la correspondiente licencia municipal.
Esleipendunaren betebeharra da jarritako instalazioak eta obrak behar bezala egiten dutela, garbi eta kasu eginda edukitzea.	El adjudicatario se obliga a mantener en buen estado de funcionamiento, limpieza y conservación, la construcción e instalaciones ubicadas.
Esleipendunak kontratua betetzean sortutako hondakinak kudeatuko ditu eta kudeaketa egokia egiteko ardura izango du. Esleipendunak sortzen dituen hondakinak bereizita bildu behar ditu. Hala, hondakin hauek bereiziko ditu: materia organiko konpostagarria, papera eta kartoia, ontziak, beira, hondakin arriskutsuak, errefusa eta, Udalak hala ezarrita, bereizita biltzeko sistema bat duten beste frakzio batzuk.	La entidad adjudicataria gestionará los residuos generados durante la ejecución del contrato y será responsable de realizar una gestión correcta. Deberá recoger selectivamente los residuos generados por ella, separando las siguientes fracciones: materia orgánica compostable, papel y cartón, envases, vidrio, residuos peligrosos, rechazo y otras fracciones para las que el Ayuntamiento establezca un sistema de recogida selectiva.
Esleipendunak hondakinak kanpoan utzi beharko ditu indarrean dagoen udal ordenantzak ezartzen duen ordutegian eta moduan. Hondakin arriskutsuak biltzeko gunera (Garbigune) eraman beharko ditu hondakin arriskutsuak.	La entidad adjudicataria deberá ocuparse de depositar los residuos en el exterior, en los horarios y forma que establezca la ordenanza municipal en vigor. Los residuos peligrosos deberá llevarlos a un punto de recogida de residuos peligrosos (Garbigune).
Esleipendunak bezeroek eskura izateko moduan jarriko ditu **ontziak, papera, materia organikoa eta errefusa bereizita biltzeko** ontziak. Ontziak ondo seinaleztatuta egongo dira, irudiekin edo euskarazko eta gaztelaniazko testuarekin.	La empresa adjudicataria deberá colocar a disposición de las y los clientes recipientes para la **recogida selectiva de envases, papel, materia orgánica y rechazo.** Los recipientes estarán convenientemente señalizados mediante una imagen o un texto en euskera y castellano.
Esleipendunaren kontura izango dira, beti, gastu hauek:	Serán de cuenta del adjudicatario los gastos siguientes:
- Instalazioak garbitu, margotu eta zaintzea, Udal Zerbitzu Teknikoek egoki irizten dioten eran.	- Limpieza, pintura y entretenimiento de las instalaciones, en las debidas condiciones a juicio de los servicios técnicos municipales.
- Era berean, esleipendunaren betebeharra da zergetako, merkataritzako eta Gizarte Segurantzako erregistro publikoetan izena eman eta sartuta izatea.	- Darse de alta e inscribirse en los Registros Públicos de carácter fiscal. Comercial y de Seguridad Social.
- Argi eta ur gastuak eta kontratuen altak	- Alta de contratos y gastos de agua y luz
- Covid-19ri aurre egiteko produktu sanitarioak: maskarak, gelak, desinfektatzaileak, etab.	- Productos sanitarios para hacer frente al Covid-19: mascarillas, geles, desinfectantes, etc.
Era berean, esleipendunaren ardura izango da eskatutako aforoa eta bezeroen arteko segurtasun-distantzia betetzea.	Así mismo, el adjudicatario será el responsable de cumplir con el aforo requerido y distancia de seguridad entre los clientes.
Esleipendunak, nahitaez, gutxienez **150.000** € eta **100.000**€-ren kalteei erantzuteko adinako erantzukizun zibilaren poliza egin behar du 1. eta 2 sortetarako. Bi sorten esleipendun izatekotan, bi zenbateko hauen baturako erantzukizun zibileko asegurua izan beharko da (hots, 250.000 €-koa).	El o los adjudicatarios quedarán obligados a suscribir una póliza de daños por responsabilidad civil por un importe mínimo de **150.000** € para el lote 1 y de **100.000** € para el lote 2. En caso de resultar adjudicatario de ambos lotes, deberá disponer de un seguro de responsabilidad civil por la suma de ambos importes (es decir, de 250.000 €).

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Urdaneta, 13 - Tel. 010 - 943481000 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Erabilerak berekin baldin badakar jabari publikoa deuseztatzea, hondatzea edo kaltetzea, esleipendunaren betebeharra da Udalari ordaintzea berreraikitzeko edo konpontzeko gastuak, osorik. Zerbitzu teknikoek adierazitako zenbatekoa gordailutu beharko du, aldez aurretik.	Si la utilización lleva aparejada la destrucción, deterioro o desperfectos del dominio público, el adjudicatario se obliga a reintegrar al Ayuntamiento el **coste total** de los gastos de reconstrucción o reparación, depositando previamente el importe que los Servicios Técnicos señalen.
Kalteak konponezinak badira, kalte ordaina eman beharko dio Udalari: deuseztatutako ondasunen balioa edo kaltetutako ondasunen hondatzearen zenbatekoa adinako kalte ordaina, alegia.	Si los daños son irreparables, indemnizará al Ayuntamiento en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o al importe del deterioro de los bienes dañados.
Jendaurrean jartzen diren idatzizko testu guztiak (eskaintzak, tarifak, prezio zerrendak, ordutegiak, abisuak eta abar) gutxienez **bi hizkuntza ofizialetan** egongo dira, euskarari lehentasuna emanez.	Todos los textos escritos (menús, tarifas, listas de precios, avisos, mensajes, etc.) se expondrán al público, al menos, en los **dos idiomas oficiales,** dando prioridad al euskera.
Esleipendunaren betebeharra da eskaintzen dituen produktuen prezioak ez izatea hirian antzeko kategoriako establezimenduetarako jarritakoak baino garestiagoak. Jendeak ikusteko moduko toki batean jarri beharko da horien prezioen zerrenda.	El adjudicatario se obliga a que los precios de las productos no sean superiores a los fijados para establecimiento de categoría similar en la ciudad, debiendo colocarse en lugar visible para el público la lista de los mismos.
Produktuak saltzen arituko diren pertsonek jendeari gutxienez bi hizkuntza ofizialetan zerbitzatzeko gaitasuna izan behar dute. Beste hizkuntza batzuk ere izango dira kontuan. Lehen hitza euskaraz egingo da.	El personal encargado de la venta de los productos deberá tener la **capacidad lingüística** para atender al público, al menos, en los **dos idiomas oficiales**, siendo valorables otros idiomas. La primera palabra será en euskera.
Esleipendunaren betebeharra da oso zerbitzu txukuna egitea, nola eskaintzen dituen produktuetan, hala langileen jantzietan.	El adjudicatario se obliga a mantener un servicio muy esmerado, tanto en los productos que ofrece, como en la indumentaria de los trabajadores.
Bozgorailuak, irratiak eta antzeko tresnak erabiltzeko garaian, **zarata eta bibrazio**engatik sortutako kutsadura akustikoari buruzko udal ordenantzari eta aplikatzekoak diren gainerako arauei jarraituko zaie. Hala, graduatu egin behar da hori, erabiltzaileei, ingurutik pasatzen direnei eta bizilagunei endredorik ez egiteko.	El uso de altavoces, radios o instrumentos similares deberá realizarse conforme a la Ordenanza Municipal, sobre contaminación acústica por **ruidos y vibraciones**, y demás normativa aplicable, debiéndose graduar de manera que no afecte a la comodidad de los usuarios, transeúntes y vecinos.
Esleipendunak ezin izango du ez publizitate iragarkirik, ez eta salmentan dituen produktuen publizitaterako eranskailurik ere jarri instalazioari edo altzariei atxikita.	El adjudicatario no podrá colocar anuncios publicitarios ni pegatinas adosadas a la instalación o mobiliario relativas a publicidad de los productos en venta.
Esleipendunak **ez** dauka jan-edenak **beirazko ontzietan ateratzerik, ezta bestelako mozgarria den material batean**. Halako ontzietan datozenak plastiko gogorreko ontzi berrerabilgarrietan atera behar dira, ebakirik-eta ez eragiteko.	El adjudicatario **no podrá servir vidrio u otros materiales cortantes**, utilizando vasos de plástico duro re-utilizables para servir las bebidas que vengan en este tipo de envases, evitando de este modo cortes y daños.
Esleipendunak **ezin** izango du erabilera bakarreko plastikozko elementurik erabili, hala nola **lastotxo, ontziteria edo/eta mahai-tresnak.**	El adjudicatario **no podrá servir** elemento de plástico de un solo uso como **pajitas, vajillas y/o cubiertos de plástico.**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Eskainiko diren kafeak eta azukreak bete egin beharko dituzte Bidezko Merkataritza eta Garapenari buruzko Europar Parlamentuaren Ebazpeneko (A6-0207/2006) parametroak. Produktu horiek hornitzaile bati erosteko konpromisoa eta horren ziurtagiria aurkeztu beharko dira.	Todo el café y el azúcar que se sirvan deberán haberse producido cumpliendo los parámetros de la Resolución del Parlamento Europeo sobre Comercio Justo y Desarrollo (A6-0207/2006). Se deberá presentar el compromiso de compra con un proveedor de estos productos y su certificado.
834/2007 EE Erregelamenduaren araberako nekazaritza ekologikoko infusio bat, freskagarri bat edo zuku bat eta snack bat eskainiko dira gutxienez.	Se ofrecerán al menos una infusión, un refresco o zumo y un snack procedentes de la agricultura ecológica según el Reglamento CE nº 834/2007.
Eskaintzen diren elikagaiek ez dute izango 1829/2003 eta 1830/2003 (EE) Erregelamenduaren arabera genetikoki aldatutako organismoetatik datozen osagaiak beren formulazioan izateagatik etiketatuta egon behar duen produkturik.	Ninguno de los alimentos servidos contendrán productos que deban estar etiquetados por contener en su formulación ingredientes provenientes de organismos genéticamente modificados de acuerdo con el Reglamento (CE) n.º 1829/2003 y 1830/2003.
Mahai oihalak eta zapiak gutxienez paper birziklatuzkoak izango dira.	La mantelería y servilletas serán como mínimo de papel reciclado.
Esleipendunak makinan garbitzeko ontzi garbigailu bat, eskuz garbitzeko baxera detergente bat eta erabilera anitzeko garbigarri bat izango ditu, eta horiek guztiek etiketa ekologiko baten irizpideak beteko dituzte. Erabiliko dituen garbiketa produktuen dokumentazioa aurkeztu beharko du.	La entidad adjudicataria deberá utilizar un lavavajillas para lavado a máquina, un lavavajillas para lavado manual y un limpiador multiuso que cumplan con los criterios de alguna etiqueta ecológica. Deberá presentar la documentación de los productos de limpieza que vaya a utilizar.
Esleipendunak onartu egingo du Udalak edonoiz **ikuskatze teknikoa eta ekonomikoa** egitea zerbitzuaren kudeaketaren gainean, haren funtzionamendua baldintza agirian eta indarrean diren lege xedapenetan jarritakoarekin bat datorrela egiaztatzeko.	El adjudicatario permitirá en cualquier momento **la inspección técnica y económica** del Ayuntamiento sobre la gestión del servicio, a fin de comprobar que su funcionamiento se ajusta a lo prevenido en el Pliego y a las disposiciones legales vigente.
Esleipendunak, erabiltzaileekiko eta bere langileekiko harremanetan, men egingo die arlo hauetan aplikagarriei diren **arauei**: hiri txukuntasunean, osasun eta higienean, jarduera gogaikarrietan, lege araubidean, istripuetan eta gizarte segurantzan.	El adjudicatario acatará las **normas** aplicables de policía urbana, sanidad e higiene, actividades molestas, régimen laboral, accidentes y seguridad social en sus relaciones con los empleados y usuarios.
Esleipendunaren betebeharra da, denboraldi bakoitza bukatu ondorengo **hamar egunen barruan**, libre eta Udalaren esku uztea, egoera onean. Udalaren zerbitzu teknikoek ebatziko dute egoera onean den edo ez. Betebehar hori ez betetzeak, berekin dituen erantzukizunak ez eze, kontratua luzatzeko orduan **kontrako txostena** izatea ere ekarriko du. Hala, bada, denboraldi bakoitza hasi aurreko hamar egunen barruan, esleipendunak baimena du lokalaren prestaketekin hasteko.	El adjudicatario se obliga a abandonar y dejar libres los espacios y a disposición del Ayuntamiento en las debidas condiciones a juicio de los Servicios Técnicos Municipales en el plazo de los **diez días siguientes** al de finalización de cada temporada. Este incumplimiento, además de las responsabilidades que de ello se puedan derivar, implicará **informe desfavorable** para sucesivas peticiones de prórroga. Así pues, en el plazo de los diez días anteriores al comienzo de cada temporada, estará autorizado para comenzar con los preparativos del local.
Esleipendunak mahai eta aulkiren bat jar dezake 1	El adjudicatario podrá colocar alguna mesa y taburetes

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Tabernan, baldin eta altzari hauek 7m² ko okupazioa gainditzen ez badute. Ez da inolaz ere pertsonen paso librea oztopatuko. Hozteko instalazioek, aurreikusitako lan bolumenerako behar besteko edukiera eta tenperatura egokia izango dituzte. Bereizita izango dira jendeari arreta egiteko eremua, biltegiarena eta garbiketakoa. Tabernak ustiatzea hartzen duenaren gain eta galorde izango da, Udalarekiko ezeren lan harremanik sortu gabe horregatik. Udalak badu eskubidea esleipendunari jendearekiko jardueretan laguntza emanarazteko; inprimakiak zabaltzen, esate baterako. Hala, Udalak eskubidea du tabernetan lankidetza horri dagozkion adierazpenak edo errotuluak jartzeko, eta baita era guztietako iragarkiak, bandoak eta publizitatea ere.	en el bar 1 siempre y cuando no se supere con este mobiliario una ocupación de 7 m². No se obstaculizará en ningún momento el paso libre de personas. Las instalaciones frigoríficas tendrán la capacidad suficiente y la temperatura adecuada para el volumen de trabajo previsto. Se diferenciarán las zonas de atención al público, almacén y limpieza. La explotación de los bares será a riesgo y ventura del adjudicatario, sin que se derive relación laboral alguna para el Ayuntamiento. El Ayuntamiento podrá imponer al adjudicatario la colaboración en actividades ante el público, como distribución de información impresa o de divulgación. Con tal motivo, el Ayuntamiento podrá colocar en los bares los reclamos o rótulos correspondientes a dicha colaboración, así como todo tipo de anuncios, bandos o publicidad.
5. Ingurumena kudeatzeko sistema bat jartzea	**5. Implantación del Sistema de Gestión Medioambiental**
Donostiako Udalak **Ingurumena kudeatzeko ISO 14001 ziurtagiria** duenez eta **EMAS** europar erregistroan izena emanda dagoenez, enpresa esleipendunak ziurtagiri horretan esku hartzen duten Udal Zerbitzuek ematen dizkioten jarraibideak bete eta bere gain hartu beharko ditu. Alde horretatik, hondartzen ingurumen kudeaketako sistematik datozen ildoei jarraituko die. Hori dela eta, jardueran sortutako hondakin guztiak ingurumen irizpideekin bat etorrita kudeatu behar dira. Lehentasuna emango zaio hiri hondakinekin parekagarri direnak **gaika biltzeari** eta garbiketan erabilitako hondakin kimikoen hondarrak nahiz etxola egokitzeko erabilitako pintura potoak eta abar ondo kudeatzeari. Esleipendunak bere jarduerak sortzen dituen hondakinen pisuen kontrol bat eraman beharko du, behar den bezala gai guztietako hondakinak banatuz eta hilabetero sortzen diren pisuen gutxi gorabeherako kalkulua egin beharko du.	Dado que el Ayuntamiento de Donostia cuenta con el Certificado de **Gestión Medioambiental ISO 14001** y está inscrito en el registro europeo **EMAS**, la empresa adjudicataria deberá realizar y asumir cuantas instrucciones reciba de los Servicios Municipales implicados en orden a dicho Certificado. En tal sentido, se ajustará a las directrices que desde el Sistema de Gestión Medioambiental de las playas puedan derivarse. Así, la gestión de todos los residuos generados en la actividad se realizará con criterios medioambientales, aplicando la **recogida selectiva** de los asimilables a los residuos urbanos, y la buena gestión de los envases y restos de residuos químicos utilizados en la limpieza así como los botes de pintura etc. utilizados para la adecuación de la caseta en su caso. El adjudicatario deberá llevar un control de los residuos generados en su actividad, debiendo separar debidamente todas las fracciones, y llevar un cálculo aproximado de los **pesos generados** mes a mes.
6. Datak, ordutegiak eta prestazioak aldatzea. Covid-19ari erreferentzia.	**6. Variaciones de fechas, horarios y prestaciones. Referencia al covid-19.**
COVI-19a edo haren hedapena geldiarazteko hartzen diren segurtasun-neurrien edo gerora sortutako beste inguruabar batzuen ondorioz, zerbitzuaren prestazioa	Como consecuencia del COVID-19 o de las medidas de seguridad que se adopten para frenar su expansión o por otras circunstancias sobrevenidas, la prestación de

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

aldatu egin daiteke, bai datetan, bai ordutegietan, bai kontratuan esleitutako jardueretan.	la concesión podrá verse modificada en sus fechas horarios o en sus propias actividades asignadas en el contrato.
Denboraldia murriztuz gero, Udalak lan egindako egunei dagokien kanona ordainaraziko dio esleipendunari.	En el caso de reducirse la temporada, el Ayuntamiento pasará al adjudicatario el abono del Canon correspondiente a los días trabajados.
Kontratuak irauten duen bitartean COVID-19 ez hedatzeko segurtasun-neurriak betetzen jarraitu behar izanez gero, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu COVID-19a prebenitzeko ekintza guztiak bere eginkizunen, instalazioen eta langileen zuzeneko xede direnak. Udalak unean-unean ezartzen dituen jarraibideak bete beharko ditu:	En caso de tener que seguir observando las medidas de seguridad para evitar la propagación del COVID-19 durante el contrato, la empresa adjudicataria se responsabilizará de todas las acciones concernientes a la prevención del COVID-19 que sean objeto directo de sus funciones, de sus instalaciones y de su personal trabajador. Deberá seguir en todo momento las instrucciones que establezca el Ayuntamiento en cada momento.
7. Zehapen araubidea	**7. Régimen sancionador**
Baldintza hauek ezeztatzen dituen edozein jarduketaren ondorioz hau gerta daiteke:	Toda actuación que contradiga el presente pliego podrá dar lugar a:
- Udalak behar diren neurriak hartzea bidegabeko jarduketaren ondorioz urratutako ordena juridikoa eta aldatutako errealitate fisikoa berrezartzeko.	- La adopción por parte del Ayuntamiento de las medidas precisas para que se proceda a la restauración del orden jurídico infringido y de la realidad física alterada o trasformada como consecuencia de la actuación ilícita.
- Bidegabeko jarduketa ustez babes daitekeen egintza administratiboak eten eta azkentzeko prozedurak hastea.	- La iniciación de los procedimientos de suspensión y extinción de actos administrativos en los que presuntamente pudieran ampararse la actuación ilícita.
- Arduradunei zehapen ekonomikoak ezartzea, aurrez dagokion zehapen prozedura tramitatuta, alde batera utzi gabe izan ditzaketen zigor ordenako ardurak.	- La imposición de sanciones económicas a los responsables, previa tramitación del correspondiente procedimientos sancionador, sin perjuicio de las posibles responsabilidades de orden penal en que hubieran incurrido.
- Kalteak eta galerak ordaindu behar izatea arduradun deklaratzen direnek.	- La obligación de resarcimiento de daños e indemnización de los perjuicios a cargo de quienes sean declarados responsables.
Arau hausteak	Infracciones
Baldintza hauetan tipifikatutako arau hausteen arduradunak izango dira arau hausteak egiten dituzten pertsona fisiko eta/edo juridikoak.	Serán responsables de las infracciones tipificadas en el presente pliego las personas físicas y/o jurídicas que las cometan.
Zehapen prozeduratik etortzen diren ardura administratiboak bateragarriak izango dira aldatutako egoera jatorrizkora itzultzeko arau hausleari ezartzen zaion betebeharrarekin.	Las responsabilidades administrativas que se deriven del procedimiento sancionador serán compatibles con la exigencia a la persona infractora de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario.
- Arau hauste **oso astunak** izango dira hauek:	- Tienen la consideración de infracciones **muy graves**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

	las siguientes:
a) Beste pertsona bati lagatzea, preziopean, guneen erabilera.	a) La cesión, bajo precio, del uso de los espacios a otra persona.
b) Edozein obra egitea dagokion udal lizentziarik gabe.	b) Realizar cualquier tipo de obra sin la correspondiente licencia municipal
c) Ez ordaintzea esleipendunaren kargurako hala kanona nola gastuak.	c) No abonar el canon, así como los gastos que sean a cuenta del adjudicatario
d) Bi falta astun egitea horiek preskribatzeko ezarritako epea baino lehen.	d) La comisión de dos faltas graves antes del plazo establecido para su prescripción.
e) Covid-19aren osasun-neurriak ez betetzea	e) No cumplir las medidas sanitarias del Covid-19.
- Arau hauste **astunak** izango dira hauek:	- Tienen la consideración de infracciones **graves** las siguientes:
a) Esleitutako guneak nahita hondatu edo suntsitzea.	a) El deterioro o destrucción intencionado de los espacios adjudicados
b) Udalari ez uztea edozein unetan ikuskapen teknikoa eta ekonomikoa egiten.	b) No permitir en cualquier momento la inspección técnica y económica del Ayuntamiento
c) Tabernetako egutegi eta ordutegiak luzatzea dagokien baimenik gabe.	c) La ampliación del calendario y horario de los bares sin la pertinente autorización
d) Zarata eta bibrazioengatik sortutako kutsadura akustikoari buruzko udal ordenantza ez betetzea.	d) El incumplimiento de la Ordenanza Municipal sobre contaminación acústica por ruidos y vibraciones
e) Ingurumena Kudeatzeko Sistematik etorritako jarraibideak ez betetzea.	e) El incumplimiento de las directrices derivadas desde el Sistema de Gestión Medioambiental
f) Hiru falta arin egitea horiek preskribatzeko ezarritako epea baino lehen.	f) La comisión de tres faltas leves antes del plazo establecido para su prescripción
g) Bi hizkuntza ofizialen erabilera ez betetzea prezioen, abisuen eta antzerakoen zerrendetan ezta bezeroarentzako zerbitzuan ere.	g) El incumplimiento del uso de los dos idiomas oficiales tanto en listas de precios, avisos, etc., como en el servicio al cliente
- Arau hauste **arinak** izango dira hauek:	- Tienen la consideración de infracciones **leves** las siguientes:
a) Elikagaiak manipulatzea	a) La manipulación de alimentos
b) Publizitate iragarkiak jartzea	b) La colocación de anuncios publicitarios
c) Altzariak jartzea barrutietatik kanpo	b) La colocación de mobiliario fuera de los recintos
d) Beira, zeramika edo ebaki dezaketen bestelako materialak erabiltzea janaria edo edariak zerbitzatzeko	d) Uso de vidrio, cerámica u otros materiales cortantes para servir comidas o bebidas
<u>Arau hausteen preskripzioa</u>	<u>Prescripción de las infracciones</u>
Arau hauste arinak 6 hilabetera preskribatuko dira, astunak 2 urtera eta oso astunak 3 urtera.	Las infracciones de carácter leve prescribirán a los 6

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

	meses, las graves lo harán a los 2 años y las muy graves a los 3 años.
Arau hausteak preskribatzeko epea arau haustea gertatu zen egunetik hasiko da kontatzen.	El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.
Preskripzioa eten egingo da, interesduna jakinaren gainean egonda, zehapen prozedura hasten bada.	Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento sancionador.
Zehapenen zenbatekoa	Cuantía de las sanciones
Arau hauste arinek 50 eta 200 eurora bitarteko isuna izango dute.	Las infracciones leves serán sancionadas con multa entre 50 y 200 €.
Arau hauste astunek 201 eta 500 eurora bitarteko isuna izango dute.	Las infracciones graves serán sancionadas con multa entre 201 y 500 €.
Arau hauste oso astunek 501 eta 3.000 eurora bitarteko isuna izango dute.	Las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de entre 501 y 3.000 €.

25 de febrero de 2021

Hiri Zerbitzuen Burua

Carlos Sánchez